


## 2014ko urrian Euskal AEko industri prezioek %0,7 egin dute behera aurreko hilaren aldean

**Aurreko urtearen aldean (2014ko urria 2013koaren aldean) %0,6 jaitsi ziren**

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industri prezioak %0,7 jaitsi ziren 2014ko urrian aurreko hilaren aldean. Datu horiek kontuan, urriko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteen industri prezioek izandako aldakuntza laburbiltzen duena) %0,6 jaitsi da.



Sektorekako azterketa xeheagoak agerian uzten du, 2014ko urrian, Metalurgia eta metalezko produktuak (%0,7), Erauzketa industriak (%0,6) eta Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (%0,4) adarrek, besteak beste, gehitu zituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Jaitsierarik handienak: Kokeriak eta petrolioaren finntzea (%-5,4), Altxariak eta beste manufaktura-industriak (%-3,2), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (%-1,6).

Urte arteko aldian (2014ko urria, 2013koaren aldean), prezio-hazkunderik handienak: Metalurgia eta metalezko produktuak (%1,5), Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa

(%1,1), Produktu farmazeutikoen fabrikazioa (%1,1). Jaitsierak: Kokeriak eta petrolio fintzea (%-7,1), Altzariak eta beste manufaktura-industriak (-3,5), Erauzketa industriak (%-3,3).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, urrian, sektore-talde handien prezioen bilakaera negatiboa izan da Energian (%-4,0) eta Ekipo-ondasunetan (%-0,5). Bitarteko ondasunen prezioak %0,5 gehitu ziren. Kontsumo-ondasunak, egonkor. Haien barruan, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak %0,0 eta iraunkorrak %+0,1.

Urte artean: Energia %-3,9, Ekipo-ondasunak %-0,5, Bitarteko ondasunak %+0,8. Kontsumo-ondasunen prezioak, oro har, %-0,1. Azken horien barruan, Kontsumo-ondasun iraunkorren prezioak %-0,7, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrenak %+0,1.

## **Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak(p). 2014ko urria**

|                                       | INDIZEA      | ALDAKUNTZA %      |                   |                   |
|---------------------------------------|--------------|-------------------|-------------------|-------------------|
|                                       |              | 2014urr / 2014ira | 2014urr / 2013urr | 2014urr / 2013abe |
| <b>INDIZE OROKORRA</b>                | <b>108,6</b> | <b>-0,7</b>       | <b>-0,6</b>       | <b>-1,2</b>       |
| <b>Sektore-banaketa</b>               |              |                   |                   |                   |
| Ateratze-industriak                   | 92,9         | 0,6               | -3,3              | -1,6              |
| Manufaktura-industria                 | 106,1        | -0,6              | -0,8              | -1,0              |
| Energia elektrikoa, gasa eta lurruna  | 127,7        | -1,6              | 0,8               | -2,7              |
| <b>Ondasunak, helburu ekonomikoka</b> |              |                   |                   |                   |
| Kontsumo-ondasunak                    | 104,3        | 0,0               | -0,1              | -0,8              |
| Kontsumo-ondasun iraunkorrak          | 100,0        | 0,1               | -0,7              | -1,2              |
| Kontsumo-ondasun ez-iraunkorra        | 105,9        | 0,0               | 0,1               | -0,6              |
| Ekipo-ondasunak                       | 103,3        | -0,5              | -0,5              | -0,5              |
| Bitarteko ondasunak                   | 105,3        | 0,5               | 0,8               | 0,8               |
| Energia                               | 121,8        | -4,0              | -3,9              | -6,0              |

Oinarria 2010=100

(p) Behin-behinekoak

**Iturria: Eustat. Euskal AEko industria prezioen indizea (IPRI)**

### **Informazio gehiago:**

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria-Prezioen Indizeari (IPRI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria-Prezioen Indizearen (IPRI) gaineko datu-bankua